



Espediente zk./Nº Expediente: 2021SZUZ0028

Erreg. data/Fecha Reg: 2021/06/08

Erreg. zk. / Nº Registro: 010363

Gaia/Asunto: ZAS! ZURRUMURRUEN AURKAKO SAREA - DIRULAGUNTZA ZUZENA 2021

Eskatzailea/Solicitante: ASOCIACIÓN ZAS! ZURRUMURRUEN AURKAKO SAREA

NAN(IFK)/DNI(NIF): G95942926

Kokalekua/Emplazamiento: ERRENTERIA

DEKRETUA

DECRETO

Legeak eman dizkidan eskumenez baliatuta, ondoko dekretua eman dut:

En uso de las atribuciones que me confiere la Ley vengo a dictar el siguiente decreto:

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

Silvana Marta Lucianik, ZAS! ZURRUMURRUEN AURKAKO SAREA elkartearen izenean dirulaguntza eskaera egin du, 2021eko ekainaren 8ko sarrera datarekin (erregistro sarrera zk.: 010363). Bertan, ZAS!-en funtzionamendua modu operatiboan eta finantzarioan finkatzea helburu duen, Euskadin urteko ekintzen eta sentsibilizazio-kanpaina bateratuen esparruan autonomia-, foru- eta toki-eremuko eragin soziala eta politikoa sustatzeko proiektu baterako dirulaguntza eskatzen du.

Con fecha 8 de junio de 2021 se ha dado registro de entrada (nº 010363) a la solicitud de subvención hecha por Silvana Marta Luciani, en nombre de la asociación ZAS! RED VASCA ANTIRUMORES. En la misma, se solicita una ayuda para un proyecto cuyo objetivo es afianzar operativa y financieramente el funcionamiento de la Red ZAS! para promover la incidencia social y política de ámbito autonómico, foral y local en el marco de acciones anuales y campañas de sensibilización conjunta en Euskadi.

ZAS! ZURRUMURRUEN AURKAKO SAREA Elkarteak, etorkinen inguruko zurrumurruen, aurreiritzien eta estereotipoen aurkako sentsibilizazioa, komunikazio kanpainak, formazioak, aholkularitzak eta saretzeak gauzatzen ditu. Gainera, erakunde eta eragileen arteko sinergiak aprobetxatzen ditu inpaktua areagotzeko.

La Asociación ZAS! RED VASCA ANTIRUMORES, realiza actividades de sensibilización en contra de rumores relacionadas con personas migrantes, campañas de comunicación, formación y asesoría. Además, aprovecha las sinergias entre entidades y agentes para amplificar el impacto.

Errenteriako Udalak 2021eko aurrekontuan badu dirulaguntza zuzenak emateko izendun partida. Eta 1.1430.481.04.327.10 (8949) partidan 1.000€-ko zorpekoa dugu A-1971-2021 ZAS! ZURRUMURRUEN AURKAKO SAREA elkartearen dirulaguntzarako eta ez dago alde zuzenik hitzarmenik egin beharrik.

El Ayuntamiento de Errenteria tiene previstas subvenciones nominativas dentro del presupuesto del 2021. En la partida 1.1430.481.04.327.10 (8949) tenemos un contraido A-1971-2021 de 1.000€ para la subvención de la asociación ZAS! RED VASCA ANTIRUMORES, no siendo necesario realizar un convenio previo.

Espedientean jaso dira beharrezkoak diren txosten guztiak, dirulaguntza ematearen aldekoak:

Constan en el expediente todos los informes necesarios, favorables al otorgamiento de la subvención:

- Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzaz eta Giza Eskubideetako Teknikariak, 2021eko ekainaren 9an emandako txostena.

- Informe de la Técnica de Diversidad Cultural, Cooperación al Desarrollo y Derechos Humanos, de fecha 9 de junio de 2021.



- Udal Aholkulari Juridikoak 2021eko ekainaren 18an oniritzia eman dio dekretu proposamenari.

- El Asesor Jurídico municipal ha dado el visto bueno a la propuesta de decreto el 18 de junio de 2021.

- Udal Kontuhartzaile ordearen fiskalizazio-txostena, 2021eko ekainaren 21ekoa.

- El informe de fiscalización de la Interventora acctal. municipal, de fecha 21 de junio de 2021.

ZUZENBIDE OINARRIAK

LEGISLACIÓN APLICABLE

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Orokorrei buruzkoa.

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.

Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-).

Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 150, de 10 de agosto de 2015).

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Udal aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por El asesor jurídico municipal a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Honen bidez,

Por la presente,

EBATZI DUT

RESUELVO

1.- ZAS! ZURRUMURRUEN AURKAKO SAREA elkarteari (G95942926) 1.000€-ko dirulaguntza ematea 2021 urtean zehar bere proiektua gauzatu dezan.

1.- Conceder a la asociación ZAS! RED VASCA ANTIRUMORES (G95942926), una subvención de 1.000€ para la ejecución de su proyecto durante el año 2021.

2.- 1.000€-ko gastua konprometitzea, indarrean dagoen aurrekontuko 1.1430.481.04.327.10 (8949) partidaren kontura, A-1971-2021.

2.- Disponer un gasto de 1.000€ con cargo a la partida 1.1430.481.04.327.10 (8949) del vigente presupuesto, A-1971-2021.

3.- Diru-laguntzaren ordainketa horrela egingo da:

3.- El abono de la subvención se realizará de la siguiente forma:

- Dirulaguntzaren %80a (800€) dekretu hau ebaztean.

- 80% de la subvención (800€) tras aprobarse el presente decreto.



- Dirulaguntzaren %20a (200€) proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren. Urteko jardueren memoria grafikoa, kontuen balantzea eta jatorrizko faktura originalak aurkeztu beharko dituzte.

- 20% de la subvención (200€) una vez ejecutado el proyecto y tras la presentación de la justificación del mismo. Deberán presentar la memoria gráfica de las actividades anuales, el balance de cuentas y las facturas originales.

Zuriketa aurkezteko epea 2021eko abenduaren 31n amaituko da.

El plazo para la presentación de la justificación finalizará el 31 de diciembre de 2021.

4.- Ebazpen hau jakinaraztea onuradun elkarteari eta ezagutaraztea Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa Sailari.

4.- Notificar esta resolución a la asociación beneficiaria y ponerla en conocimiento del Departamento de Hacienda y Desarrollo Económico.

Errenteria, sinaduraren data

Errenteria, fecha de la firma

KULTUR ANIZTASUNEKO, GARAPENERAKO
LANKIDETZAKO ETA GIZA ESKUBIDEETAKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

CONCEJAL DELEGADO DE DIVERSIDAD
CULTURAL, COOPERACIÓN PARA EL
DESARROLLO Y DERECHOS HUMANOS

Stua/Fdo.: Jose Ramon Gurrutxaga Zubizarreta



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU4be2473f-61c9-4207-a39a-ed618823c652**

Dokumentu elektronikoa honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021SZUZ0028-DEKRETUA/DECRETO (ASOCIACIÓN ZAS! ZURRUMURRUEN